

Botereari planto egiteko ordua da!



IRATI TOBAR
EGUZKITZA
FEMINISTA ETA
SINDIKALISTA

COVID-19a gaixotasuna edo obediencia sistema bat ez ote den zalantzan nago. Punitiboa den sistema baten parte den obediencia, hasieran beldur-raren bitartez gure gorputzetan sartu dutena eta ondoren auto-kontrolaren eta “arduraren” izenean gorputzen duguna. Espetxean ez ote gauden galdetu diogu askok geure buruari, berriro ere, beste batzuek erabakitzen dutelako gure gainean, eta askatasun faltak antsietateak jota utzi dituelako asko, edo lasaigarrien dosietan dantzan. Zer esanik ez ondoko biziraupen eta zaintzarako milaka estrategia martxan jartzen dituzten horien edo kapitalismoak gogor kolpatzen dituen kolektibo zaurgarrienen kasuan.

Baimendurik eta debekaturik dagoenaren zerranda egiten digute astero eta gure artean fase bakoitzean egin deza-keguna ikasten eta eztabaidatzen ematen dugu denbora. Ez dakigun kasuetan, gure auzokide edo herritarrek gogor-raziko dizkigute, jarrerak zuzenduz edo askotariko errepresio formak baliatuz. Lagundu asmoz mota guztietako Poliziak atera dituzte kalera. EAEn garaiotan ikastetxeetan gure haur edo nerabeei diziplina soziala irakatsi diezaiekegula esatera ausartu da nor eta osasun sailburua.

Espainiar zein frantziar gobernuburuak, zein Euskal Herrian gaur egun aldebakarrez des-gobernatzen dutenak bihurtu dira gu guztion espetxe-zain. Konfinatzea agindu digute, produkzioa gelditu ez eta konfinatuta egonda ere lan egitera bidali gaituzte, maitasunaren izenean eta dohainik etxean era zaurgarrienean zain-tzera behartu gaituzte, arrisku gehien dutenen ondotik aldendu gaituzte eta hainbat eta hainbat pertsona hiltzen utzi dituzte, gehienetan bakarrik eta kasuren batean ezkutuan –zahar egoitzetako eskandaluaz inoiz argipenak eman beharko dizkigute–.

Noiz arte? Noiz arte jarraitu dezake gure haserre indibidual baina obediencia? Guztiz desaktibatuta gara, kaleetatik atera eta mobilizazio zein borrokarako tresnak konfinatu dizkigute. Haserrea eta zapalkuntza honen ondorioak zein arrazoiak kolektibizatu behar ditugu urgentziaz. Garai ezegonkor eta arraro hauetan zer onartzeko prest ez gauden kaleetan adierazteko ordua da, desobeditzekoa, saretzekoa eta botereari planto egitekoa. Ez! esateko ordua da. Osasuna eta bizitza lehen lerroan jartzekoa, kapitalaren metaketari eta heteropatriarkatuari arrakalak egitekoa. Beste sistema eta eredu bat inoiz baino beharrezkoagoa zaigu. ●

Baratzearen defentsaren garrantzia



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Egutegia atsekabez begiratzen aritunaiz, egunek eta asteek aurrera erritmo pisutsu eta oso arraroan egiten dutelarik. Lehenbizi olibondoak kimatu gabe geratu ziren, gero patatak erein gabe, tipulak ezin landatu... gobernu ordezkarietara deitu nuenean: “*si es una huerta de ocio, no...*”. Nola ocio?

Kontraesanez beteriko arau nahasgarriek merkaturako produkzioa babes-teko obsesioa dute ardatz eta merkatuz kanpoko (auto)produkzioa baztertua izan da, existituko ez balitz bezala. Merkaturako nekazaritza bai, baratzeak ez. Tabernako terraza bai, etxean egindako

infusioa banku batetan edatea ordutegitik kanpo ez. Turismo enpresak bai, lagunekin mendira ez.

Ez ikustea gatazkaren alde honetatik ere elikatu izan da. Analisia merkatuaren logikaren ikuspuntutik egiteko tradizioa dute ezkerren zenbait sektorek, feminismoaren sektore batek barne. Bi dimentsio: plusbalioaren desjabetzea eta, txanponaren beste aldean, lan indarraren erreproduktzio dohainekoa. Merkatutik kanpoko erabilera balioa – eta ez merkatu balio bat-sortzeak ez du tokirik agertokian. Eta tokia izan baino, protagonista behar du izan; autogestio feminista baita askabidea. ●